

**Otsailaren 27ko
3/1985 legea,
Arartekoa erakundea
sortu eta
arautzekoa**

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

Otsailaren 27ko 3/1985 legea, Arartekoa erakundea sortu eta arautzekoa*

* 1985eko martxoaren 22ko «Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian» argitaratua (63. zenbakia). Lege hori jatorrizko idazketan Eusko Legebiltzarrak onartuta atera zen, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 27.5 artikuluan eta «Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE)» antolatzeari buruzko otsailaren 8ko 181/2008 Errege Dekretuaren 6.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, gaur egun indarrean egotea galarazi gabe. (Arartekoaren legeaz ari da)

Zioen adierazpena

Lehenengo idazpurua: araudia

Bigarren idazpurua: iharduna

Lehenengo atalburua: argipideketari eta biderapenari ekitea

Bigarren atalburua: Ikerpenpeko Ihardutze-Erakunde eta Erakundeekingo harremanez

Hirugarren atalburua: adierazpenak eta azken ebazpenak

Hirugarren idazpurua: Legebiltzarrarekingo harremanez

Laugarren idazpurua: “Defensor del Pueblo”-rekingo harremanez

Boskarren idazpurua: zerbitzuez

Lehenengo erabaki gahigarria

Bigarren erabaki gahigarria

Aldi baterako lehenengo erabakia

Aldi baterako bigarren erabakia

Azken erabakia

Zioen adierazpena

1. Euskal Herriko Autonomia-Estatutoak, bere 15karren atalean dioenez, “Euskal Herriari dagokio, Parlamentuak emandako legeaz, eta Konstituzioaren 54. artikuluan ezartzen den erakundeari dagokionez, antzeko organo bat sortu eta eratzea, beroren bidez harekin koordinatuz aipaturiko artikuluan diren funtzioak eta Euskal Biltzarreak gomenda diezazkiokeen beste edonolakoak ere bete ditzan”.

Beraz, Lege honek, ARARTEKOa izenez sortzen eta arautzen duen erakundea Autonomia-Estatutoan bertan berariz oharremanda dago.

2. “Herri Jagolea” delako erakundea, bere zernolakoak eta artezpideak zedarritu dituen aspalditikako ospearen eta tradizioaren jabe da. Ezagunena Ombudsman delakoa dela izen bereziak eman ohi zaizkion erakunde hori jatorriz sueziarra da eta mundu osora zabalduta, Ingalaterrako Parliamentary Commissioner for Administration eta Frantziako Médiateur delakoa bezelako horren kideko batzuk jatorrizko sueziarraregandik aski aldendu eta, nolabait behintzat, Ombudsman-az bestelako ihardutza-sail bilakatu direla egia

denarren. Baina zera aitortzea ere bidezkoa da: Aldakuntza hoiak, Ingalaterran, adibidez, Legebiltzarraren goren-agintearen arauerako irizpide oinarri zuen lege-alorreko antzinako tradizioaren, eta Frantzian benetako Herri-Jagole zela esatera iritsi zeneko Erresuma-Kontseiluak zuen itzalaren ondorio zirela. Nolanahi ere, zera ere egia da: Frantziako Médiateur delakoaren egituraren garrantzizko alderdi batzuk, Errepublikako Lehendakariaren, Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren arteko harremanen erakunde-mailako egituraketaren ondorio direla.

Ombudsman sueziarraren, Justitie-Ombudsman-en delakoaren sorrera, Suezia Oroagintze-Erregegoa izatetik konstituzio-arauzkoa izaterainoko aldakuntzaren kondairari berari eta Legebiltzarrean zeuden gizarte-indarrek zuten Legebiltzarraren bilkurarteko alditan erregepeko herrilanarien iharduna politikazko ikusketen-beharrari, bertatik bertara datxekie. Legebiltzarkide-erapidetzak Europako gairontzeko aldetan egin zuen bideak ez zuen XX mendearen zati handi bat igaroarte horrelakorik beretzakotu. Zehazki esateko, Mundu-mailako II Gerratea bukatu arte, hortik aurrera gertatzen bait-da Erresumaren gizartearekiko

egitekoen eta herriareipideak babesteko erapidetzaren aldakuntza haundi bat.

3. Nolanahi ere, eta lege-politikazko zio ezberdinekin bada ere, Ombudsman delakoak, esandako salbuespenekin, bere jatorri eskandinabiarrarekin lotzen duten zenbait ezaugarri eutsi egin die. Hoietakoa hiru nabarmen-tzen dira beste guztien gainetik:

Lehenengo eta behin, egitekoz, herritarrek ardulararitza on bat izateko duten eskubidea babesteko eta legetasun-arauerako oinarri-izpidearen bermea izateko Ardulararitza zainpe-tera jotzen duen ihardutze-sail bat dugu.

Bigarrenez, eta ihardutze-sail honek burujabetasunez diharduenarren, kargu horretarakoa Legebiltzarrak izendatzen du.

Eta hirugarrena, herritarren eskubideak eta iareipideak aldeztu diharduen Ardulararitza zaintzeko ihardutze-sail bat denez gero, herritarrek Ombudsman delakoarengana inolako bitartekorik gebe iritzi ahal izatea bermatu behar du. Horren ondorioz, Ombudsman delako hori araeukiko iareitasunez eta bideak laburtuz aritzen da.

4. Ombudsman delakoa berandu sartu da Europako hegoaldeko konstituzio-erapidetzetan. Euskaldiri zehazki gagozkiola, herritarrek herri-ardulararitzen iharduna zaintzeko aukera zabalak dituztenaz ez dugu ahanzi behar. Konstituzioaren arauerako babes-eskea eta, orohar, alor guztiak hartzen dituen konstituzio-legepidetza; auzipide-ardulararitzen aginte-eremua; Legebiltzarraren ihardutze-sail denez ardulararitza artezten duen Jaur-laritzarekiko Legebiltzarraren zaingo-miraketa; hain zuzen ere ardulararitza txarra eragoztea xede duten barne-ikuskaketak, etabar, erakundea sortu zeneko kondaira-unean, garbi dagoenez, ez zegoen eskubideak babesteko eta ardulararitzarekiko ikerpena egiteko erapidetza baten adierazgarri dira.

ARARTEKOA, horrela, Gizarte eta Demokraziako Legeen arauerako Erresumaren bilakakuntzari eta horrek gizabanakoen eskubideen aldarrikapen hutsa gaudituz eskubide eta aireipideak bermatzeko bidean erakutsi dituen akatsei argi eta garbi egokitzen zaien eta egiazko iareipideak herri-agintaritzan benetako eginbehar direnez (E.H.A.-E.-ren 9.2 Atala) beste zaingo-iareipideak herria gintaritzen benetako eginbehar direnez ikusten dituen Estatutoan oharmandakoari baliorik kentzen.

5. Mundu-mailako II Gerrateaz gero Herri-Agintaritzak aldatu egin dira, herritarren ihardunean askoz ere gehiago eskuhartzeko jarrera bat hartuz. Egoera horrek, ardulararitza txarra deneko egoeretarako arta egiteko ohizko eren ezina eta egokitasunik eza agertaraztea izan du ondorio. Herri-Ardulararitza guztien zuduen aldezpenerako erabili behar izaten dituen bide nahaspilatsu eta zailak sortarazten duten ardulararitzapekoen Ardulararitzarekiko beldurra ez da dauden arazoetan txikiena hori dela eta, batzutan, guztien zuduak hobeki aldezteko xedezkoak ardulararitzapekoentzat kalte-bide gertatzen direla. Hor du hain zuzen Onabudsman delakoak, ardulararitza-ihardunaren orohartzeko balioaren alorrean alegia, Legearen arauerako Gizarte eta Demokraziako Erresuman izateko funtseko zioa.

Ombudsman delakoa, birraztertu beharreko arazoak aurrean jarri, bere iharduneango aldakuntzetarako buzipenak egin, eta Ardulararitzak gaizki ihardutzea Legeagatikakoa denean legegintza dagokienei akio eginaz Ardulararitzari akio eta bultz egiten dion arrazoi-endarrezko Auzimaisugo bat dela esan izan da, eta zuzen esan ere. Ombudsman-ak, legezkontrakotsaunak somatzen direnean ihardutzea ezezik legeak aldarazteko bulz ere egiten du, bizitzaren ontasun-maila hobetzeko.

Ombudsman hori, horrela, ardulararitzapekoen eskubideak bermatzeko bidetan nahi-taez dauden hutsak betetzen dituen Ardulararitzaren jabearazte-endarrezko laguntzaile gertatzen da.

6. Esandako hoiek Estatutoan oharteman-dakoaren zuzena erakusten dute.

Lege honek bere tradiziorik jatorrenaren arauera antolatzen du ARARTEKO delakoa, herritarren Herri-Ardularitzarekingo harremanetango eskubideak bermatzeko.

Legebiltzarrean sortu eta haren aurrean baizik erantzun behar ez duen Erakunde bat dugu. Horren ihardunak ez du Legea eta bere iritzia eta, Legebiltzarraren Eskudun denez, Legebiltzarrak eman diezazkion artezpideez besteko gainekorik.

Erakundearen duintasunak, kargu hori izan dezana alderdi-zaletasunik gabea eta erabat iarea izatea eskatzen du. Honetara jotzen dute Legeak ohartematen dituen bateraezin-arau zorrotzak, eta bai politika-zabalkundezko ezein ekintzetan ihardutzeko debekuak ere.

Legeak Ardularitzaren zerdenaz duen iritzia zabala da, Ardularitzak izan duen bilakakuntzari dagokiola eta, hori, halako ekintzapide bat osorik edo alderdiren batetik norbanako-alorreko legepekoa izan ez izan. Horregatik, Herri-Enpresak eta norbanakoen agintaritzaren baimenaren bidezko ekintzapideak ere ARARTEKOaren ahalmen eta eskubiden eremuan sartzen dira. Ekintzapide hoiekiko ikermenari gagozkiola. ARARTEKOak idazgu guztietara sartzeko eta Legearen arauera isilpekotzat jotako agiripaperak izan ezik beste guztiak eskuratzeko eskubidea du. Horren iharduna, funtsean, aholkuak eta buzipenak egitean eta bere bilaketan ondorioak Txostenen bidez ezagutaraztean datza. Txosten hoietan bere lana eragotzi duten herrilariaren edo era gaitzesgarrian ari daitezenen izenak eraso ditzake. Horrek, Jaurlaritzaren politikazko erantzukizuna babes dutela herrilariaren batzuk bere agintepideaz agian gehiegikeriaz baliatu daitezenez ariskuak gutxitzea du xede, Jaurlaritzaren politikazko erantzunbeharraren kaltetan gabe.

ARARTEKOaren ekintzak ez dute inolako epe-rik, eta horrek eskuhartzea ez dakar ardularitza-bideak geldiarazterik, ez eperakoaldiak ez kontatzerik ere.

7. Horri berenez dagokion ihardutze-eremuari buruz, berriz, lehenengo eta behin Autonomia-Elkartearen mugartean ari diren Herri-Ardularitza guztiei datxekiela esan behar da; beraz, horren ahalmen eta eskubideak Elkarte Osoko Ardularitza, Kondaira-Lurraldeetako eta Tokikoa hartzen dituzte.

ARARTEKOak berenezko agintepideak egite-ratzen ditu, Estatutoaren aginduz, erakunde hori Estatutoari bait-dario artez, eta horren "Defensor del Pueblo" delakoarekingo harremanak ez bait-dira aginte-egiturazko menpe-tasunezkoak. Hori ez da, inola ere, eskubideen aldezpenerako Konstituzio-Epaitegira joatea edo Erresuma osorako ihardutze-sailei akio egiteko horren beharra dagoela eritzitakoetan "Defensor del Pueblo" rengana jo ahal izateko eragozpen.

Beti ere, elkarri egokitzeko eta languntza emateko harremanak hitzarmen eta ituneen bidez antolatuko dira.

Ebazte-Batzordeak, Legebiltzarra eta Jaur-laritza baino ez dira ARARTEKOaren ikermene-tik kanpo gelditzen, baina bere politika ar-tezkaritzarako egitekoei dagokienetan bakar bakarrik, eta ez bere agintepideen alorrean ardularitza-zako egintzak aginduz edo eraba-kiak emanaz egiteratu ditzaten ardularitza-alor huts-hutseko egitekoei buruzkoetan.

Legeak berebaitan daraman herri-Ardural-ritza zer denari buruzko irizpidea, herri-zer-bitzuak eskaintzezko gaurreguneko egoerari dagokion irizpide bat dugu eta, esan denez, horren ihardun osoa edo ihardunaren zati bat dugu Norbanako-alorreko Legepeko alorrean-go izan ez izan. Alde horretatik, eta Legearen 10.1 d) Atalari gagozkiola, zera azpimarratu behar dugu: Médiateur frantsesak bere ga-raian beretzako zuen Ardularitza-Legepi-detzarekiko oinarri-eritzi jatorrenen arauera, hartaz ari geraneko ihardutze-erakundea "guztien zuduko behar bat betetzen edo ze-harka eta urrutitik bada ere Ardularitzak ihar-dutze-erakunde horrekiko ikerpena egitezko alderdiren bat dagoenean" herri-zerbitzuko ihardun bat dago. Honela, legez edo araudiz herri-erakunde izan ezaren ardularitza-ahal-

menak edo eskua emandako eskubideak egiteratzen dituztenak, baimenpekoak adibidez, ARARTEKOaren miraketa-ahalmenaren menpe gelditzen dira. Orobat Herri-Bazkunak ere, Herri-alorreko Legepeko izan eta bere egituraren eta ihardunaren zati batek, gutxienez, herri-alorreko legepeko arauen jaurpidepeko izan daitezten neurrian. Beraz, ikerpenaren menpe gelditzen den herri iharduna edo ekintzapideak artezko xede duen ekintzapidea edo Ardularitza-Legepekoa dira, eta ez beste.

Honela, beraz, ARARTEKOak, bere iharduneari, ezingo ditu barne-ardularitzaren eremuak hartu.

Horrelakoetan, ikermenak herri-ekintzapideren batek bere helburuak lortu ditzan arta egitea, somatu daitezkeen akatsak kentzea eta, hala egokituz gero, Herri-Ardularitzari bere babes ematezko, ikuskaritzarako eta zigorrak jartzeko ahalmena egiteratu dezaten akio gitea du xede.

8. Bukatzeko, erakunde horri jarri zaion izena, Euskal Herri-alorreko Legepidetzan berria den erakunde bati izena ere berria jarri beharrraren ondorio izan da. Alde horretatik, euskerazko izena jartzeak komenigarri dirudi.

Bestalde, erakunde berria da. Egia esan, aurrekoak izan ditu, bai Gaztelaren eraginpeko euskal lurraldeetan, bai Pirineo-aldeko erresumetako lege-tradizioetan herrotutakoetan ere. Baina, hala ere, ez dago hoiek parekatzerik.

Aurreko hoiek, Arabako Sindiko Prokuradore Nagusia adibidez, bakar-agintezko Erregetzapean eta mailaka eratutako gizarte-giroan sortzen dira eta hoiei datxezkie, gizarte-maila baten abantailak besteen aurka, edo jauntxoaren aurka, edo Erregearen aurrean aldezte xede duten erakundeak bait-dera. ARARTEKOa erabat bestelakoa da, mailaz-mailako gizartearen orde berdintasunaren arauerako irizpidea, eta abantailaren tokian guztien eskubideak eta askatasuna jartzen direneko neurri berean.

Areago, Feudo-Aroko Legepidetango izenak hemen birlandatzarik ere ez dago, eta are gutxiago erakunde hoiek (Aragoiko "Justicia Mayor" delakoarekin adibidez gertatzen denaz bestela) euskal kondaira-gogamenean itzalita daudela, euskaldunek bere kondaira-oroitzapenean ez bait-dute Lege honek arau-petzen duen erakundearen moeta bereko ezein erakunderenganako atxikipenik.

Lehenengo idazpurua

■ Araudia

■ Lehenengo Atala

1. Legebiltzarrak Konstituzioaren I Idazpuruak dakartzan eskubideak Legeak dionez bermatuz aldeztu, eta Autonomia-Estatutoaren 9garren Atalak dakartzan demokrazia-zko oinarri-irizpide orokorrak bete daitezenez arduratzeko jarritako goikarguduna da ARARTEKOA.
2. Herritarrak agintari eta agintaritza-gehi-gikerietatik eta Euskal Herri-Arduralaritza-ren utzikerietatik babestea du bere xede nagusia.
3. Herri-Arduralaritzetatik burujabe izanik, artezpideak, Legebiltzarrak erabakitzen duen eran, honengandik baino jasotzen ez dituela, Autonomia-Estatutoak artez ohar-temandako herri-erakunde da. Bere iritzien arauera dihardu, Legeei atxikiz eta "Defensor del Pueblo"-rekin elkar hartuta.
4. ARARTEKOAren eta Legebiltzarraren arteko harremanak honek zehaztu dezan erakoak izango dira.

■ 2garren Atala. Izendapena

1. ARARTEKOA Legebiltzarrak izendatuko du, bere Araudiak dion eran.
2. Izendapena egiteko, Legebiltzarkideen hiru bostenen gehiengoa atera beharko da. Gehiengo hori lortzen ez bada, gehienez hilabeteko epearen barruan, erabateko gehiengoa lortu arte, bata bestearen ondorengo saloak egingo dira.

■ 3garren Atala. Izendapena eta karguaz jabetzea

1. Legebiltzarreko Lehendakariak ARARTEKOAren izendapena bere izenpeaz egiaztatu, eta izendapen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedila aginduko du.
2. ARARTEKOA Legebiltzarraren Osoko Bilkuran jabetuko da bere karguaz, eta bere egitekoa zintzo beteko duela zin egin edo hitza emango du.

■ 4garren Atala. Hautagaitasun-baldintzak

ARARTEKO-izendapenerako honako hauek beharrezkoak izango dira:

- a) Legez euskaldun izatea.
- b) Herri eta politika-alorretako eskubide guztien jabe izatea.

■ 5karren Atala. Ihardunaren iraupena

1. ARARTEKOa bost urterako izendatzen da, eta hori halako beste aldi bakar baterako birrizendatu daiteke.
2. Hartarako izendatu zuteneko aldia bukatu ondoren, bere ondorengoa karguaz jabetu dedinerarte bere ihardunearan iraungo du.
3. Nolanahi ere, ihardutze-aldia manu-aldia bukatu eta sei hilabetera amaituko da. Aldi horrek diraueno Legebiltzarra ezabatzea gertatuz gero, ihardutze-manua Legebiltzarraren ezabapenaren eta Legebiltzarra eratzearen arteko aldiaren beste halako baterako luzatu ahal izango da.
4. Tokia hutsik gelditu dedin beste guztietan, hutsik egote hori Lege honen 7.5 Atalak dioenaren arauera adierazi dedinetik hasi eta hilabete baino gehiago gabeko epe baten barruan ekingo zaie izendapen-bideei.

■ 6garren Atala. Elkartuezinak

1. ARARTEKOTza honako hauekin batera ezinezkoa da:
 - a) Herri-hauteskunde bidezko ezein ordezkatzekarekin.
 - b) Aukerako izendapenezko ezein politika karekin.
 - c) Politika-alderdi, sindikaritzak edo ugazaba-elkarteren bateko bazkide izatearekin.
 - d) Bazkun edo iraskunderen baten artezkaritza-ihardunearan aritzearekin.
 - e) Ezein Herri-Ardularitzatan ihardunearan zerbitzuan aritzearekin; epailaritzan edo epai-salataritzan ihardutzearekin.

f) Ogibidezko, karrerazko, merkataritza edo laneko ezein ihardunearan aritzearekin.

2. ARARTEKOak ezingo du inolako politika-zko zabalkunde-ekintzarik egin.
3. Doakiokeen ezein elkartuezin izatea gertatuz gero, ARARTEKOak bere izendapena egin zen egunetik hasi eta hurrengo hamar egunen barruan eta karguaz jabetu baino lehen utzi egin beharko du. Uste hori, Legebiltzarreko Mahaiari Lehendakariaren bidez bidalitako idatziz egingo da. Bestela, izendapenari uko egiten diola ulertuko da.

■ 7garren Atala

1. Honako hauetakoren bategatik bukatuko da ARARTEKO izatea:
 - a) Tokia utzi izanagatik.
 - b) Izendapenaren jabe izateko aldia bukatu izanagatik, Lege honetako 5karren atalean agintzen denaren kaltetan gabe.
 - c) Hiltzea edo geroztikako ezina gertatu izanagatik.
 - d) Bere karguko eginbehar eta egitekoak betetzen ajolagabekeria nabarmenez ihardun izanagatik Legebiltzarrak bere tokitik kendu izanagatik.
 - e) Marrukeriazko lege-hauspenegatikako sendetsitako epai-erabakiaren gai izanagatik.
 - f) Gero gertatutako elkartuezinagatik.
 - g) Legezko euskalduntasuna edo herri eta politikaeskubide guztien osoko jabe izatea galdu izanagatik.
2. Toki-uzteak Legebiltzarreko Mahaiari adierakion unetik bertatik du eragite-indarra, aurrez ontzat eman edo aldarrikatu beharrik gabe.
3. Atal honen lehenengo zatiko d) txatalean oharmandakoa gertatuz gero, kargutik kentzea, eztabaidaketa ondoren, Legebiltzarreko kideen hiru bostenen gehiengoz erabakiko da. Gaitzespen-salopeko ARARTEKOak, bere ihardunaren aldepe-

na egiteko, eztabaidaketan eta aintzin-ekitaldi guztietan eskuhartu ahal izango du.

4. Gero gertatutako ezinaren ondorioz kargua hutsik dagoelako aldarrikapena Legebiltzarreko kideen hiru bostenen gehien-gez erabaki beharko da.
5. Kargua hutsik dagoelako aldarrikapena, beti, Legebiltzarreko Lehendakariak egin beharko du, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedila aginduko.
6. Kargua hutsik dagoela aldarrikatu ondoren, hilabete baino gehiagokoa izango ez den aldian ARARTEKO berria aukeratzeko egipideei ekingo zaie.

■ 8garren Atala. Arartekolagunaz

1. ARARTEKOari, jarri dedin lan-erakuntzaren arauera bere egitekoetan bere ordezkotza eman ahal izango dion Arartekolagun batek lagunduko dio. Arartekolagunak ARARTEKOaren ordezkotza egingo du kargua hutsik egotea edo ARARTEKOa gorputzeko ezinean edo aldi baterako kanpoan izatea gerta dedinetan.
2. Arartekolagunari ezingo zaio inola ere Legebiltzar, Jaurilaritza edo Sailburuekingo harremanetarako edo hoiien ardulararitza hutsezko ihardunekiko ordezkotzarik eman.
3. Arartekolaguna ARARTEKOak izendatuko eta kenduko du, nahi bezala, Legebiltzarren onarpena jaso ondoren. Izendapena eta kargua uztea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.
4. Arartekotagunarekin, ARARTEKOarentzat idazpuru honetan edo horrentzako berarizko Lege-jaurpideei buruzko beste edozein manutan ohartemandakoak erabiliko dira.

■ 9garren Atala. Ihardutze-eremua

1. Ikertze-ahalmenak honako hauek hartuko ditu:
 - a) Autonomia-Elkarte Osorako Ardulararitza, Tokiko Ardulararitza, Ihardutze-erakunde

burujabeak, herribaltzuak eta haren menpeko gainontzeko izaikiak barne.

- b. Kondaira-Lurraldeetako Ardulararitza, bertako ihardutze-erakunde burujabeak, herri-baltzuak eta haren menpeko gainontzeko herri-izaikiak barne.
- c) Toki-Ardulararitza, bertako ihardutze erakunde burujabeak, herri-baltzak eta haren menpeko gainontzeko herri-izaikiak barne, Autonomia-Estatutoko 10,4 atalean zehaztutako aginte-eskurnenen esparruan.
- d) Berenezko nahiz lege-nortasundunen ardulararitza.zko eskuemate-bidezko eraentzapeko zerbitzuak eta, orohar, herri-zerbitzuren bat egin eta aldi berean ardularitza nola bateko arta edo babespean egon dedin ezein ihardutze-sail, erakunde, edo legezko nahiz berezko ezein nortasundun, Autonomia-Estatutoak Autonomia-Elkarteari agintepideak ematen dizkioneko gaiei buruzko guztian.
2. ARARTEKOak, Epai-Ardularitza ihardunarekiko arrenkurak jaso ditzanean, arrenkurak, hoiien miaketa egiteko edo hoietaz erabakia emateko gaitasunaren jabe den ihardutze-erakundeari igorriko dizkio.
3. Ikermena "Defensor del Pueblo"-rekin elkar hartuta egiteratuko du, Autonomia-Estatutoaren 15karren atalean eta jorrailaren 6ko 3/ 1981 Ihardutze-Legearen 12garren atalean ohartemandakoaren arauera, hala behar izanez gero, horretaz elkar hartuz.

■ 10garren Atala

ARARTEKOaren ahalmena, egintza eta erabakietara ezezik, hoiien aipamen egin gabe uztera ere iristen da.

■ 11garren Alala

ARARTEKOari dagokio:

- a) Herritar bati nahiz herritar talde bati doazkion eta bederatzigarren Atalean esandako erakundearen egintza edojokabideak garbitzeko arakaketak hasi eta egitea.

- b) Dagokien ihardutze-sailei, herrilanaiei edo hoiien lanariburuei aholkuak ematea edo legezko egitekoak gogoraraztea, legez kontrako edo bidegabekeriako egintzak zuzentzen edo Arduralaritza-zerbizuak hobetzea lortzen saiatzeko.
- c) Arduralaritzapekoen eskubideen bermapide arduralaritzaren eta herri-zerbitzuen ihardunak beharrezko diren irizkeriarik eza eta eraginkortasuna izan ditzan, legeetango hutsez buzipenak eginaz ohartaraztea. Aholku hoiek Legebiltzarrari, Jaurilaritzari, Biltzar, Nagusiei, Foru-Diputazioei, Udaltzatzarrei edo 9.1.d) atalean aipatzen diren Erakunde edo Ihardutze-Erakundeei eman ahal izango dizkie.
- d) Bere ardurapeko arazoetan, Legebiltzarrak edo 9.1 Atalean esandako Erakundeetako edozeinek eskatuta erizpenak ematea.
- e) Bere esku dituen bideetatik, eta bereziki herriadierazpideetatik bere lanaren nolakoa, bere ikerpideak eta urteroko txostena ezagutaraztea. Horretarako, eta ARARTEKOak bere egitekoak hobeko egiteratzeko eta herriak bere iharduna ezagutu dezan komenigarri eritzi diezaionean, Autonomia-Elkarteko herri-jabetzapeko adierazpideak horretarako tokiak utzi beharko dizkiote.

■ 12garren Atala. Arakamena

Bere egiteko eta agintepideak behar bezala egiteratzeko, ARARTEKOa araugabeko eta lasterkako bideez baliatuko da. Horretarako, honako hauek egin ahal izango ditu:

- a) Aurrez gaztigua aginda nahiz gaztigurik gabe 9.1 Atalean esandako ihardutze-erakunde eta erakundeen ezein zerbitzu edo idazgutan ikuskaketak egitea, agiri-paperak aztertuz, ihardutze-sail, herrilanaiei edo lanariei entzunaz, eta komenigarri eritzitako argipideak eskatuz.
- b) Komenigarri eritzitako argipideketak egitea, herritarren eta artapeko erakundeei bidezko eskubide eta zuduen kaltetangoak izan ez daitezaren baldintzapean.

- c) Horretarako gai diren ihardutza-sail eta zerbitzuekin elkar hartuta, herritarren bidezko zuduen aldezpenerako eta arduralaritza-sailen alderdikeriarik ezaren, eginkortasunaren, erdirakortasunik ezaren, aginte-banaketaren, antolakidetzaren eta Legeei eta Zuzenari erabat men egitearen arauerako irizpideei egokitzeko aterapiderik egokienak lortzen saiatzea.
- d) Argipideketa egingo zaion arazoari buruzko argipideak eman ditzakeela uste izatea arrazoizko izan dedineko, ARARTEKO-ren ikuskaketaren gai diren arduralaritzen zerbitzurako ezein herrilanaiei edo lanariri, aurrera joan dakioneko idatzizko deia egitea.

■ 13garren Atala. Mugapena

1. ARARTEKOa ez da sendetsitako epaia-aren gai izan edo epailaritza-erabakiaren zain egon daitezaren arrenkurak banaka aztertzen hasiko. Horretan hasi ondoren doakionen batek agizko Epaitegien edo KonstituzioEpaitegiaren aurrerako zuzenketa-eskea edo goradeia sartzen badu, azterketak geldiarazi egingo dio.
2. Legebiltzarra eta Jaurilaritza bere Ikuskaritza-ahalmenetik kanpo gelditzen dira, hoietan bietan, arduralaritza hutsezko iharduna salbu.
3. Halaber, Ebazpen-Batzordeen iharduna ere bere ikuskaritza-ahalmenetik kanpo gelditzen da.

■ 14garren Atala. Eskubideen norainokoa

ARARTEKOak ez du 9.1 Atalean esandako ihardutze-erakundeen egintzak ezabatzeko, baliogabetzeko edo aldatzeko ahalmenik. Horrek eskuhartzeak ez ditu epeak luza-arazten.

■ 15garren Atala. Isilpekotasuna

1. Agiripaper bat indarrean dauden legeen arauera ofizial-isilpekotan sailkatzeak ez du ARARTEKOak hori ezagutzea eragotziko.

2. Aurreko zatian esandakoa horrela dela ere, Jaurlaritzak, horretzazko berarzik erabaki baten bidez, ARARTEKOari agiri-paper hoietarako bidea itxi egin ahal izango dio. ARARTEKOak, agiripaper hori ezagutzeari ikuskaketa ongi egiteko ezinbestekoa baderitza,
3. Jaurlaritzaren erabakia dagokion Legebiltzar-Batzordeari jakinarazi ahal izango dio.
4. Beti ere ARARTEKOak edo horren menpeko lanariek egin ditzaten argipideketa guztiak erabat isilpekoak izango dira, eta hori, ARARTEKOak Legebiltzarrarentzako

argipide-txostenetan sartu beharrezkotzat jotako buruzpideen kaltetan gabe.

■ 16garren Atala

1. ARARTEKOaren ihardunak ez du Legebiltzarra bildu gabe egotearen, ezabatu izanaren edo bere agintealdia izanaren ondorioz etenik izango.
2. Salbuespen edo hertsipen-egoera aldarrikatzeak ez du ARARTEKOaren iharduna, ez eta herritarrek horrengana jotzeko duten eskubidea ere etengo, Konstituzioko 55karren atalean agindutakoaren kaltetan gabe.

Bigarren idazpurua

■ Iharduna

LEHENGO ATALBURUA Argipideketari eta biderapenari ekitea

■ 17garren Atala. Argipideketari ekiteaz

1. ARARTEKOak bere arioz nahiz doakionak eskatuta ekin ahal izango dio argipideketari. ARARTEKOak bere berenezko bidez arauz-kontrako egoeraren bat ezagutu dezanean, bere arioz ekin ahal izango dio argipideketari.
2. ARARTEKOarekin agitz harremanak izan ditzan Batzordeak argipideketarako batzordeek edo legebiltzarkideek banaka ere eskatu ahal izango dute argipideketan hastea.
3. Inolako arduralaritza-agintarik ezingo dio bere ardurapeko arazoetan ARARTEKOari arrenkurarik aurkeztu ahal izango.

■ 18garren Atala. Doakionak eskatuta argipideketari ekiteaz

1. ARARTEKOari arrenkurak aurkeztea, bidezko zudu baten oinarrituta egin beharko da.

2. Doakionaren lege-aberritasuna, egoitza, gara-adineko ez izatea edo legez gaitasunik ez izatea, espetxean sartuta edo zigortuta egotea, edo, orohar, Arduralaritza edo herriagintaritza batekiko manupetasunezko edo menpekotasunezko ezein berarizko atxikipen ez da ARARTEKOaren-gana jo ahal izateko eragozpen izango.
3. Doakionak arrenkura atzera jasotzeko asmoa azalduko balu ere, argipideketari jarraitu ahal izango dio ARARTEKOak.

■ 19garren Atala. Eraz

1. Arrenkurak idatziz nahiz hitzez aurkeztuko dira. Nolanahi ere zio eta guztikoak izan beharko dute arazoa argi uzteko baliagarri izan daitezkeen behar hainbat agiripaper erantsiz. Aurkezten dituenaren nortasun-xehapenak eta egoitza izan beharko dute barne.
2. Hitzeko arrenkurak ezingo dira ARARTEKOaren zerbitzuen egoitza izan dedin idazguan baizik aurkeztu. Arrenkura hoiek idatzi egingo dira, eta gero doakionak irakurri eta izenpetu egingo ditu.

- Arrenkurak ezingo dira aurkeztu doakionak arrenkura sortzeko gai izan daitezken jokabide edo egintzak jakin zituenetik urtebete baino gehiagoko aldia igaro ondoren aurkeztu.

■ 20garren Atala. Kexu-errolda

ARARTEKOaren zerbitzuek, aurkeztu dakizkien arrenkura guztiak errolderatu eta hartze-agiria egingo dute, eta hoierei bere bideak eragingo edo uko egingo zaie.

■ 21garren Atala. Arrenkurei uko egitea

- Arrenkurak onargarriak diren erabakitzeko, hoierei balioaren aldeazurreko haztapen bat egingo da.
- Honako zernolako hauetakoren bat gerta dedinean, arrenkurei uko egingo zaie:
 - Bidezko interesgarritasunik ikusi es dakionean.
 - Egiten duena nor den esaten ez denean.
 - Ardulararitza-lana nahasteko edo geldiarazteko asmo txarra edo bide horretaz gehiegikeriaz baliatzen agertu dedinean.
 - Egiaztatu gabe egon edo eskatutako xehapenak etnan ez daitezenean.
 - Bere arduratze-eremutik kanporakoak izan daitezenean. "Defensor del Pueblo"-ren arduratze-eremuari datxezkonean, horri bidaliko dizkio.
- Arrenkura asmo txarrez egindakoa dela egiaztatu, eta lege heuspenaren itxurak egon daitezenean, ARARTEKOak dago-kion Epai-Agintaritzari jakinaraziko dio.
- Egindako arrenkurei uko egiten bazaie, ARARTEKOak doakionari zio eta guztiko idatziz jakinaraziko dio, bere ekintza egipideratzeko biderik egokienak, bideren bat balego behintzat, zein diren adieraziz.

■ 22garren Atala. Jazarpenak

ARARTEKOaren erabakien aurka ez da inolako jazarpenik egiterik izango.

BIGARREN ATALBURUA

Ikerpenpeko Ihardutze-Erakunde eta Erakundeekingo harremanez

■ 23garren Atala. Laguntza eman beharra

9.1 Atalean esandako Erakundeetako Ihardutze-sailak, eskatu dakizkien xehapen, agiri, argipide edo garbitasun guztiak lehentasunez eta presaz ematea behartuta daude.

■ 24garren Atala. Bere ekintxari oztopoak jartzea

- Ezein herrilari, agintari, enpresa baimendun bateko edo ardularitzaren nolabaiteko zaingo edo babespeko bateko ezein lanarik edo arduradunek eskatutakoa bidaltzeari uko egitea edo zabarkeriaz aritzea, eta bai ARARTEKOari eskatutako zehaztapidetzak edo ardularitza-agiriak eskuratzeko edo idazguetara sartzeko bideak ixtea edo zailtzea ere, horren lanarekiko oztopotat joko da. ARARTEKOak, jokabide horren berri aginte-mailazko gainekoari jakinaraziko dio.
- Herri-Ardularitzaren zerbitzurako ezein ihardutze-sail, herrilari, artezkari edo norbanakok ARARTEKOaren argipideketa-lanen aurkako edo hoierei oztopoak jartzeko jarreran irautea, bere urteroko txostenaren horretazko zatian nabarmenarazteaz gainera, berarizko argipidetxosten baten gai izan daiteke.

■ 25garren Atala

Herrilari edo langileari 23garren Atalak jartzen dizkion eginbeharrak betetzea debekatu diezaion goragoko mailako agintari edo ihardutze-sailak, bai haiei baita ARARTEKOari ere bidalitako zio eta guztiko idatziz egingo du. ARARTEKOak aurrerantzean beha-, rrezko izan daitezen argipideketa-egintza guztien eskea esandako goragoko horri egingo dio.

■ 26garren Atala. Epeak

Argipideak eskatzerakoan, eta zehaztapidetzak edo nolana hiko beste xehapenak bidaltzerakoan, ARARTEKOak eskatutakoa egiteko epe bat jarriko du.

■ 27garren Atala. Gehiegikeria, apeta, bereizkeria, hutsegile edo zebarkeria gertatuz gerorako ekintzapideak

Egindako argipideei, itxuraz, arrendura herrilariaren edo langileren baten gehiegikeriaren, apetaren, bereizkeriaren, huts, edo utzikeria baten ondoriozkoa dela darienean, ARARTEKOak horretazko bere iritzia doakionari artaz adierazi ahal izango dio. Egun berean, gaineko agintemilakoari, egoki eritzitako buzipe-nak eginez, idazki horren aldaki bat bidaliko dio.

ARARTEKOak emandako aholkuak kontutan hartu ez eta alde horretatik neurri egokirik hartuko ez balitz, ARARTEKOak, doakion arduralaritzazko ihardutze-saileko aginte-mailaz goreneko den arduradunari jakinaraziko dio, eta gaia bere urteroko edo berarizko argipide-txostenean sartuko du.

■ 28garren Atala. Erantzunbeharragatikako ekintza

ARARTEKOak, herrilari edo arduralaritzaren nolana hiko arta edo babespeko edo baimenpeko enpresetako langile edo arduradunei erantzun beharra eskatzea bere arioz egin ahal izango du, aurrez idatziz adierazi beharrik gabe.

■ 29garren Atala

Argipideketan lege-hauspenaren arrazoizko itxurak agertuz gero, ARARTEKOak Herri-Salataritzari jakinaraziko dizkio.

HIRUGARREN ATALBURUA Adierazpenak eta azken ebazpenak

■ 30garren Alala. Argipidekelen ondorioez

ARARTEKOak, arrenkura egin duenari, argipideketak atera dedina jakinaraziko dio.

■ 31garren Atala. Bukaeraz

Era berean, argipideketa bukatu izana, doakion agintari, ihardutze-erakunde, herrilari edo langileari adieraziko zaio.

Hirugarren idazpurua

■ Legebiltzarrarekingo harremanez

■ 32garren Atala. Urteoroko Argipide-txostenaz

1. ARARTEKOak, urteoro, bere ihardunaren kontuak emango dizkio Legebiltzarrari, Argipide-txosten baten bidez.
2. Txosten horrek, eskubideekiko babesa Autonomia-Elkartean zertan dagoenari buruzko orohartzezko neurketa bat izan beharko du barne. Halaber, honako beste hauek sartu beharko dira, gutxienez: Egindako argipideketen zenbatekoa eta moeta; uko egin zaien arrenkurak, eta ukoaren zergatikakoa; egindako argipideketei dariena, ikerpenaren gai izandako ihardutze-sailei emandako aholkuak edo egindako buzipenak adieraziz eta baita, hala egokituz gero, Herri-Arduralaritzak hobeki ari daitezen eman, aldatu edo baliogabetu beharko liratekeen Legeak edo legezko manuak ere, eta interesgarri erizitako beste ezein xehapen.
3. Argipide-txostena hitzez aurkeztuko da, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran.

■ 33garren Atala. Ohizkoen besteko argipide-txostenez

Gertakarien larriak edo presak komenigarri egin dezatenean, ARARTEKOak, noiznahi, bere arioz ohizkoen besteko argipide-txosten bat Legebiltzarrean aurkeztu ahal izango du.

■ 34garren Atala. Argipide-txostenen argitalpenaz

Urteoroko Agipide-txostenak eta berarizkoak Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

■ 35garren Atala. Legebiltzarrarekingo elkarlanaz

1. ARARTEKOa, deitu dakionean, Legebiltzar-Batzordeen bilkurara joango da, dei egin dakionean nahiz berak komenigarri erizitakoan. Halaber, hoietara joateko eskea ere egin ahal izango du.
2. Argipideketei ekitea Batzorde baten edo Legebiltzarkide baten arioz dedinean, horri lortutakoa jakinaraziko dio. Ez eskuhartzea erabaki dezanean, zio eta guztiko zergatikakoa emango du.

Laugarren idazpurua

■ “Defensor del Pueblo”-rekingo harremanez

■ 36garren Atala

1. ARARTEKOa, bere ihardunean, “Defensor del Pueblo”-gandik iare eta bereburu da, 9.1 Atalean zehaztutako erakunde eta ihardutze-erakundeei buruzko ikermena egite-ratzea dagokiola, Jorrailaren 6ko 3/1981 Oinarrizko Legearen 12garren Atalaren indarrez Erresumako “Herri-Aldeztailea”-ri dagozkiokkeen agintepideen kaltetan gabe.
2. ARARTEKOak “Defensor del Pueblo”-re-kin hitzarmenak egin ahal izango ditu eta, hoiek, bi erakundeen artean elkarkidetza eta elkarlaguntza gauzatzeko xedez, ba-teango ekintzatarako irizpideak zehaztu ahal izateko.
3. Hoiek egindako orotariko hitzarmenak Le-gebiltzarrari adieraziko zaizkio, jakin eta onar ditzan. Hitzarmen hoiek Euskal He-

rriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara-tuko dira.

■ 37garren Atala

ARARTEKOak, bere ariozko aginduz nahiz doakionak eskatuta, “Defensor del Pueblo”-rengana zioak azalduz jo al izango du, horrek, herritarren zuduak aldezteko, eta bidezko de-rizkion guztietan:

- a) Konstituziotasunik ezazko jazarpena edo babeseskea sartu edo egiteratu ditzan.
- b) 9garren atalean esandako ihardutze-erakunde eta erakundeen iharduneango akatsak Erresuma-Arduralaritzak behar bezala ez ihardutzeak edo erresumaren agintepeko arauak sortarazitakoak izan daitezenean, Erresuma osorako ihardutze-sailei aholkuak bidali diezazkien.

Boskarren idazpurua

■ Zerbitzuez

■ 38garren Atala. Lanariak

1. ARARTEKOak nahi bezala izendatzen ditu, bere Araudiari atxikiz éta Diruegitamuetako mugen barruan, bere ihardunerako beharrezko izan daitezen aholkulariak eta konfiantzazko lanariak.
2. ARARTEKOaren gainontzeko lanariak Eusko Legebiltzarreko erroldango lanariak izango dira, hioen lantokia izendatzea, zentzarazte-ahalmena, zerbitzutik kentzekoa izan ezik, eta herrilanari direnezko gainontzeko egintza guztiak ARARTEKOari dagozkiola.

■ 39garren Atala. Berarizko Egoerak

1. ARARTEKOaren zerbitzurako lanariak Autonomia-Elkarteko Arduralaritza Nagusitikakoak, KondairaElkarteko Arduralaritza Nagusitikakoak, Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Sailetatikakoak, edo Euskal Herrian kokatuta dauden Toki-Erakundeetatikakoak direnean, zerbitzu hoiei eratxiki baino lehen zuten lan-tokia eta toki-izendapena gorde eta egoera ho-

netan egindako aldia ondorio guztietarako kontatu egingo zaic.

2. Lanariak lehen esandakoez beste herri-arduralariizatetikakoak izan daitezenean, hoiekin erabilgarri izan daitezen legepi-deak dioena egingo da.

■ 40garren Atala. Lantokiak uzteaz

Legebiltzarreko lanari-erroldeko izan ez daitezen laguntzaileak, aholkulari eta lanariak, ARARTEKO berria bere karguaz jabetu dedin unean bertan berez eta besterik gabe bere toki-a utzi egingo dute.

■ 41garren Atala. Diruegitamuak

1. Bere Diruegitamuen Egitasmoa ARARTEKOak berak egingo du, eta Legebiltzarreko Diruegitamuen egitasmoarentzako arauen ariorako bideak eginaraziko zaizkio.
2. ARARTEKOarentzako diru-izendapena Legebiltzarren Diruegitamuetako diruatal bat izango da.

■ 42garren Atala. Gastuetarako burujabetza

Gastuak egiteko baimenak emateari buruzkoetan, ARARTEKOak Legebiltzarrak dituen jaupideen heuren menpe egongo da.

■ 43garren Atala. Biderapenaren dohangotasuna

1. ARARTEKOaren ihardunak arrenkurak agertu ditzatenentzat dohangoak izango dira.
2. 12.d) atalean agintzen denaren ondorioz, norbanakoek egindako gastuei edo jasan-dako gauzazko kalteei aurre egiteko diruatal bat egongo da ARARTEKOrentzako diruizendapenetan.

Erabakiak

■ LEHENENGO ERABAKI GAHIGARRIA

ARARTEKOa bere karguaz jabetu eta urtebete baino lehenagoko ardularitza-egintza baten ondorio izan edo, ardularitza-isiltasuna egon bada, epea karguaz jabetze horren ondorengo urtea bete baino lehen bukatu ondorengo arrenkurak bazter utziko dira, arrenkura Ardularitzaaren iharduna orohar txarra delako aurkeztu dela eritziakoa agindu-bide hutsezko argipideketa bati ekin ahal izatearen kaltetan gabe.

■ BIGARREN ERABAKI GEHIGARRIA

ARARTEKOaren barne-Araudia ARARTEKOak berak ontzat eman, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dedila aginduko du.

■ ALDI BATERAKO LEHENENGO ERABAKIA

1. Lege hau indarrean jarri eta bi urtetara, ARARTEKOak, zio eta guztiko txosten baten bidez, bere iritzi horretan egin beharreko aldakuntzen saloa egin ahal izango dio Legebiltzarrari.
2. ARARTEKOak, noiznahi, berarekingo harreman egokia bermatzeko bere ihardutze-erakuntza antolatu dezateneko aholkuak egin ahal izango dizkie Herri-Ardularitzari.

■ ALDI BATERAKO BIGARREN ERABAKIA

Lege hau indarrean jarri ondorengo bi hilabeteren barruan ekingo zaio Legebiltzarra ARARTEKOa aukeratzeko biderapenari.

■ AZKEN ERABAKIA

Lege hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hilabetera jarriko da indarrean.



www.ararteko.eus